



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri**

Gasteiz, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

2016ko azaroa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizkidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Gasteiz, 1960-2010

Bigarren edizioa

2016ko azaroa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena. 6

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

1. ETA, ETApn, ETAm eta Komando Autonomoek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
 2. BVE-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 43
 3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 45
-

Erabilitako iturri eta zerrendak. 57

Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

Erretratu bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

Aitortutako biktima horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzazieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutaz dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezur-mamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

1. **ETA, ETApm, ETAm** eta **Komando Autonomoek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Valentín Godoy Cerezo

Data: 1977/06/26.

Adina: 28 urte.

Non jaioa: Santa Amalia (Badajoz).

Bizilekua: Vitoria-Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Armatuko kidea. Praktikantea Arabako hiriburuko Polizia Armatuaren kuarteleko erizaindegian. Sei hilabete ziren bertara igorri zutenetik.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Guardia zibilek haren ibilgailuaren barruan aurkitu zuten gorpua, Gasteizen.

Prozedura: Su-armaz. Hiru tiro buruan, distantzia laburretik.

Datu gehigarriak: Ez zen lekukorik izan. Talde ezezagun batek aldarrikatu zuen gertakaria, «Doble G» izenekoak (Gazte Gudaroste), baina ez zen inoiz berriro haien berririk izan. Beste iturri batzuek ETArri egotzi izan diote. Vidas Rotas lanak, ETArri esleitu zion egiletza, eta baieztatzen du Ministroen Kontseiluak Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko gurutze handia eman ziola 2000ko martxoan. Barne Ministerioak terrorismoaren biktima gisa aitortua.

1

Miguel Angel Raya Aguilar

Data: 1978/03/05.

Adina: 28 urte.

Non jaioa: Huelma (Jaén).

Destinoa: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Armatuko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko Zaramaga auzoa.

Prozedura: Land Roverraren aurka hainbat tiro jota.

Datu gehigarriak: Beste bi polizia hil zituzten: Joaquin Ramos Gomez eta Jose Vicente Del Val Del Río. Eta beste bi polizia, berriz, zauritu: Armando Doval Gonzalez eta Santiago del Canto de los Reyes.

2

Joaquin Ramos Gomez

Data: 1978/03/05.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Sevilla.

Destinoa: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkondua.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia armatuko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko Santiago Ospitalean, Zaramaga auzoan metrailatu eta bi ordura.

Prozedura: Poliziaren Land Roverraren aurka hainbat tiro jota.

Datu gehigarriak: Beste bi polizia hil zituzten: Miguel Angel Raya Aguilar eta Jose Vicente Del Val Del Rio. Eta beste bi polizia, berriz, zauritu: Armando Doval Gonzalez eta Santiago del Canto de los Reyes.

3

Jose Vicente Del Val del Rio

Atentatuaren data: 1978/03/05.

Heriotzaren data: 1978/03/24.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Burgos.

Destinoa: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Armatuko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Santiago Ospitalean, Gasteizko Zaramaga auzoan metrailatu eta hogeita bat egun hilzorian eman ondoren.

Prozedura: Poliziaren Land Roverren aurka hainbat tiro jota.

Datu gehigarriak: Beste bi polizia hil zituzten: Miguel Angel Raya Aguilar eta Joaquin Ramos Gomez. Eta beste bi polizia, berriz, zauritu: Armando Doval Gonzalez eta Santiago del Canto de los Reyes.

4

Jose Garcia Gastiain

Gertakariaren data: 1978/08/25.

Heriotzaren data: 1978/08/26.

Adina: 68 urte.

Non jaioa: Adana.

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: "YAROGA S.L." entpresako gerentea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko ospitalean, Fray Zacarías Martínez kalean zegoen Polizia Nazionalaren kuartel ondoan zauriturik gertatu ostean. Tiro bat jaso zuen eskuineko hezur parietalean.

Prozedura: su-arma.

Datu gehigarriak: Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errokonozitu zuen.

5

Jose Antonio Ferreiro Gonzalez

Data: 1978/09/23.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Valle de Oro (Lugo).

Destinoa: Gasteiz.

Seme-alabak: Alaba bat eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Armatuko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteiztik zortzi kilometrora, Logroñora bidean.

Prozedura: Bonba-tranpa bat leherrarazita, telefono-dei baten ondoren.

Datu gehigarriak: Beste lau polizia zauritu ziren: Luis Mas Perez kapitaina, eta Javier Arranz Freire, Valeriano Arroyo Bernal eta Amancio Gutierrez Alvarez agenteak.

6

Saturnino Sota Argaiz

Data: 1978/12/13.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: Aldeanueva de Ebro (Errioxa).

Bizilekua: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Industrialaria. Ogi-denda baten jabea Gasteizen.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Bere denda barruan tiro egin zioten, Gasteizko Alde Zaharreko Aiztogile kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

7

Sergio Borrajo Palacin

Data: 1979/02/14.

Adina: 68 urte.

Non jaioa: San Joaquín (Guatemala).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Infanteriako teniente koronela. Gasteizko Gobernu Militarrean egiten zuen lan. Gerrako Elbarrien probintziako burua.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Bere etxe-atarian, Gasteizko Herrandarren kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

8

Antonio Recio Claver

Data: 1979/03/23.

Adina: 50 urte.

Non jaioa: Zaragoza.

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Informazio-brigadako inspektorea. CESIDeko kidea. Iturgintza-enpresa bateko diru-kontuez arduratzen zen.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Familiaren enpresan, Gasteizko Karlos VII.a kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

9

Juan Cruz Montoya Ortueta

Data: 1979/12/18.

Adina: 59 urte.

Non jaioa: Zanbrana (Araba).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Aita Marianisten Ikastetxeko atezaina.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko osasun-zentro batean, Aita Marianisten Ikastetxearen sarreran zauriturik gertatu ostean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Gasteizko ikastetxe pribatuetan, manifestazio isilak eta lanuzteak egin zituzten.

10

Jesus Ignacio Velasco Zuazola

Data: 1980/01/10.

Adina: 47 urte.

Non jaioa: Gasteiz.

Seme-alabak: Lau alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Armadako Zalditeria-komandantea. Arabako Foru Aldundiko Miñoi-burua.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Autoan Gasteizko Ramiro de Maeztu kalean barrena zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Hildakoaren alarguna, Ana Maria Vidal-Abarca, Arabako Alianza Popular alderdiko presidenteordea zen senarra hil ziotenean. 1981eko otsailean, Madrilen AVT (Asociación Víctimas del Terrorismo, www.avt.org) sortu zuten hiru emakumeetako bat izan zen.

11

Eugenio Lazaro Valle

Data: 1980/04/13.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: Santoña (Kantabria).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Infanteria-komandantea. Gasteizko Udaltzaingoaren inspektore-burua. Gasteizko Polizia Armatuaren kapitain ohia.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko Los Angeles parrokian, mezatatik irtetean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Gasteizko Udalak bi dolu-egun dekretatu zituen.

12

Luis Hergueta Guinea

Data: 1980/06/25.

Adina: 54 urte.

Non jaioa: Zenbait iturrik Irun aipatzen dute (El Periódico de Catalunya, 1980/06/26). Egun bereko El País egunkariak, ordea, arabarra zela aipatzen du.

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ingeniari teknikoa. Gasteizko Safen-Michelin enpresako instalazioen eta materialen bulego teknikoetako zuzendari nagusia.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Gasteizko Dato kalean, bere etxe-atarian.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

13

Basilio Altuna Fernandez de Arroyabe

Data: 1980/09/06.

Adina: 57 urte.

Non jaioa: Azua (Burgelu, Araba).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kapitaina.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Erentxuneko plaza (Araba).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

14

Jose Ignacio Ustaran Ramirez

Data: 1980/09/29.

Adina: 51 urte.

Non jaioa: Gasteiz.

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ingeniari teknikoa eta aseguratzailea. UCD alderdiko kidea.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Gasteizko bere etxean bahitu, eta San Prudentzio Hiribideko garajearen sarre-
ran hilik aurkitu zuten, UCD alderdiaren egoitzaren ondoan.

Prozedura: Bahiketa. Su-armaz hil zuten.

15

Luis Cadarso San Juan

Data: 1981/04/14.

Adina: 64 urte.

Non jaioa: Gasteiz.

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Erretiroa hartuta zuen Gurdia Zibilaren teniente koronela. Guardia Zibilaren Bizkaiko Komandantziako buruordea izan zen, Bilboko La Salveko kuartelean.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Basauriko erdigunean, egunkari-denda baten ondoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

16

Francisco Gonzalez Ruiz

Data: 1982/10/31.

Adina: 24 urte.

Non jaioa: Granada.

Destinoa: Gasteiz.

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik. Hiru hilabete lehenago ezkondu zen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Polizia Nazionalaren konboi bat (tanke bat eta bi furgoneta) Gasteizko Arana auzoko azpiestazio elektriko batera zihoala, urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazi zuten.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Hedatze-uhinaren ondorioz, hamaika polizia zauritu ziren (Jose Manuel Calvo, Adolfo Canovas, Ventura Enebral, Antonio Gutierrez, Emilio Herrera, Miguel Fernando Lozano, Jose Ocaña, Juan Pastor, Manuel Pazos eta Florencio Romero). Haietako bat larri zauritu zen, bai eta haurdun zegoen emakume bat ere.

17

Ramiro Salazar Suero

Data: 1983/07/23.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Urbina (Araba).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba. Emaztea haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Enpresarioa. Autoen salerosketarako Automóviles Salazar ize-neko negozio bat zuen Gasteizen.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Santiago Ospitalean. Ordu batzuk lehenago, lokian tiro egin zioten, Gasteizko bere negozioaren sarreran zegoela, eta larri zauritu zuten.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

18

Jose Antonio Julian Bayano

Data: 1983/11/26.

Adina: 43 urte.

Non jaioa: Alarba (Zaragoza).

Bizilekua: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gaueko bi klubak (Barbacoa eta Liberty) eta taberna baten jabea Gasteizen.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Gasteizko kanpoaldean, Iruñera doan bidean, zeuzkan klubetako bat ixten ari zela.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

19

Pedro Ortiz de Urbina Garayalde

Data: 1984/03/01.

Adina: 63 urte.

Non jaioa: Gamarra Nagusia (Araba).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik. Alarguna.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko udal-hiltegiko albataria. Polizia-komisariorde erretiratua.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizko Judimendi Hiribideko bere etxean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Aurretik, komandoko kideek ibilgailu baten jabea bahitu zuten. Harekin batera sartu ziren biktimak bizileku zuen etxeko atezainen etxebizitzara. Han, atezaina eta autoaren jabea lotu eta bozatu zituzten, eta Ortiz de Urbina bizi zen etxera joan ziren. Atean jo, eta pakete bat eman behar ziotela esan zioten. Ortiz de Urbinak atea irekitzean, hil egin zuten.

20

Carlos Diaz Arcocha

Data: 1985/03/07.

Adina: 52 urte.

Non jaioa: Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ertzaintzaren operazio-burua (superintendentea). Armadaren teniente koronela. Donostian, hiru urte eman zituen inteligentzia-zerbitzuetan, CESIDen. Gero, Loiolako (Donostia) kuartel militarreko Sizilia Erregimentura bidali zuten.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizko kanpoaldean, Elorriagako gasolindegiko tabernako aparkalekuan.

Prozedura: Lapa-bonba bat leherrarazita. Amu-hari bat lotu zioten gurpilari, autoa mugitzean lapa-bonba aktiba zedin.

21

Agustin Ruiz Fernandez de Retana

Data: 1985/07/29.

Adina: 43 urte.

Non jaioa: Mendoza (Araba).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Poliziaren komisariordea.

Destinoa: Gasteizko Polizia Nazionalaren Polizia Etxeko NANaren bulegoak.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Lagun batzuekin batera ardo batzuk hartzen ari zen Kutxa kalean, Gasteizko Alde Zaharretik gertu.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

22

Fernando Amor Calvo

Data: 1985/08/03.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: San Saturnino (Coruña).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bere emaztea haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren Tedaxeko kidea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Barakaldoko Enrique Sotomayor osasun-zentroan, ebakuntza bat egiten zioten bitartean. Luiaondoko (Aiara) El Peñón pubaren atari ondoan lehergailu bat desaktibatu nahian zebilela, lehergailuak eztanda egin eta Amor Calvo zauritu egin zen.

Prozedura: Bonba bat leherrarazita.

23

Felix Gallego Salmón

Data: 1985/09/14.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Santoña (Kantabria).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Destinoa: Hamar urte zeramatzan Gasteizen.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizko Eulogio Serdan kalean, oina azeleragailuan jarri zuenean.

Prozedura: Lapa-bonba bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Poliziarekin batera autoan zihoan Candido Martin Franco larri zauritu zen.

24

Rafael Mucientes Sanz

Data: 1987/08/06.

Adina: 37 urte.

Non jaioa: Mojados (Valladolid).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionalako kidea.

Destinoa: Polizia Nazionalaren 56. Banderako IV. Konpainia (Gasteiz).

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Armentia auzoan (Gasteiz), Polizia Nazionalaren bi patruila kalean barrena zihoazela.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Antonio Liger Hec polizia hil zuten. Oinezko batek, Obdulia Vega Solac-ek, zauriak izan zituen.

25

Antonio Ligero Hec

Data: 1987/08/06.

Adina: 30 urte.

Non jaioa: Conil de la Frontera (Cádiz).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea. 1979an Polizia Nazionalan sartu aurretik, itsas mekanikari modura egin zuen lan.

Destinoa: Hiru urte zeramatzan Polizia Nazionalaren 56. Banderako IV. Konpainian (Gasteiz).

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Armentia auzoan (Gasteiz), Polizia Nazionalaren bi patruila kalean barrena zihoazela.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Rafael Mucientes Sanz polizia hil zuten. Oinezko batek, Obdulia Vega Solac-ek, zauriak izan zituen.

26

Antonio Mateo Melero

Data: 1987/11/01.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Vejer de la Frontera (Cádiz).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren kabo lehena.

Destinoa: Gasteizko Sansomendiko Guardia Zibilaren Komandantzia.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Familiakoekin eta lagunekin batera Ordiziako taberna batetik irtetea.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

27

Francisco Espina Vargas

Data: 1988/04/15.

Adina: 29 urte.

Non jaioa: Coria del Río (Sevilla).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia nazional motorizatua.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Heraclio Fournier kalean, Gasteizko Adurzabal taberna ondoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Antonio Gomez Osuna polizia hil zuten.

28

Antonio Gomez Osuna

Data: 1988/04/15.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: La Puebla del Río (Sevilla).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia nazional motorizatua.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Heraclio Fournier kalean, Gasteizko Adurzabal taberna ondoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Francisco Espina Vargas polizia hil zuten.

29

Alfonso Parada Ulloa

Atentatuaren data: 1998/05/08.

Heriotzaren data: 1998/05/09.

Adina: 61 urte.

Non jaioa: Melide (Coruña).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren tenienteordea erreserban. Sarjentua izan zen, Abetxukoko postuko komandantea. Gasteizko Udalean PPko bozeramaile zen Alfredo Marco Tabarren laguna zen.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Txagorritxuko ospitaleko ZIUu, bezperan bere etxetik gertu, Gasteizko Biltzar Nagusien kalean, lokian tiro bat jaso ondoren.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

30

Fernando Buesa Blanco

Data: 2000/02/22.

Adina: 53 urte.

Non jaioa: Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea (1984-2000), eta Eusko Legebiltzarreko PSE-EEren bozeramailea. Arabako PSE-EEko idazkari nagusia. Democracia Cristiana Vasca alderdian hasi zuen bere ibilbide politikoa. Gasteizko Udaleko zinegotzia izan zen (1983-1997), Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordea (1990-1994) eta Arabako Ahaldu Nagusia (1987-1991). Abokatua.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizko campusean pasieran zebilela.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Jorge Diaz Elorza eskolta hil zen, eta zenbait oinezko arin zauritu ziren. Eusko Jaurlaritzak hiru dolu-egun dekretatu zituen. 2000ko azaroan, Fernando Buesa Fundazioa sortu zen. Gasteizko Araba Arena pabiloiak Fernando Buesa Arena izena darara 2000ko martxoaz geroztik.

31

Jorge Diez Elorza

Data: 2000/02/22.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ertzaina, Fernando Buesa legebiltzarkidearen eskolta.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizko campusean pasieran zebilela.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Fernando Buesa legebiltzarkidea hil zen, eta zenbait oinezko arin zauritu ziren. Eusko Jaurlaritzak hiru dolu-egun dekretatu zituen.

32

Maximo Casado Carrera

Data: 2000/10/22.

Adina: 44 urte.

Non jaioa: Santa Elena de Jamuz (Jaén).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Alaba bat eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Langraizeko espetxeko funtzionarioen zerbitzu-burua. Espe-
txe horretan egiten zuen lan 1983. urteaz geroztik. CC.OO. sindikatuko kidea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Gasteizen, autoa aparkatzen zuen garajeen.

Prozedura: Autoa martxan jartzean lapa-bonba bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Gasteizko Udalak Maximo Casado izena jarri zien hiriko lorategi batzuei.

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

2. **BVE**-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Enrique Gomez Alvarez

Data: 1979/06/25.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Porqueros (Leon).

Bizilekua: Arrasate (Gipuzkoa). Gasteizen (Araba) ere bizi izan zen. Azkenaldian, Baionan (Lapurdi) bizi zen, errefuxiatu modura.

Seme-alabak: Bikotekidea haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Euskara ikasi ondoren, euskarako irakaslea izan zen Gasteizen, harik eta Arrasatera joan zen arte. Errefuxiatua.

Egilea: Batallón Vasco Español (BVE).

Heriotza-lekua: Cristina Larrañaga bikotekidearekin batera autoan etxera zihoala, atzetik segika zituztela ohartu ziren. Autoa gelditu zuen, eta Baionako erdigunean dagoen Udalaitz tabernan sartu zen, telefonoz laguntza eskatzeko. Ohartzera, baina, lau lagun tabernan sartu eta tiroka hasi zitzaizkien.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Bizitzeko
eskubidearen
urraketak

3. Segurtasun-indarrek
bizitzeko eskubidearen aurka
egindako urraketak

1

Joaquin Diestre Barroso

Data: 15/10/1973.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Santa María de los Barros (Badajoz).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Pintorea.

Egilea: Guardia zibila.

Heriotza-lekua: Behar bezala seinaleztatuta ez zegoen Guardia Zibilaren kontrol batean, Fruiztik Muxikara (Bizkaia) doan errepidean, goizaldeko 03:00ak aldera.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: 1973ko urriaren 17ko ABC egunkariak, Cifra agentziaren bitartez, agintari frankisten ohar ofiziala transkribatu zuen. Bertan, "jazarpen" hitza aipatzen da. Oharrean esaten denez, "birritan gelditzeko agindu" arren, guardia zibilak tiroka hasi ziren. Biktimak "aurrekaririk ez zuela" onartu zuen 1973ko urriaren 17ko ABC egunkariak. Garai hartan oso erraz egiten zen tiro, eta, hala, 1970etik 1982ra bitartean, antzeko egoeretan (polizia-kontroletan, alegia), 19 hildako eta 31 zauritu izan ziren (Ikus Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2008ko ekainean argitaratutako Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketen biktimak izeneko txostena).

2

Romualdo Barroso Chaparro

Data: 1976/03/03.

Adina: 19 urte.

Non jaioa: Brozas (Cáceres).

Bizilekua: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Agrator enpresako langilea.

Egilea: Polizia Armatua.

Heriotza-lekua: Gasteizko Zaramaga auzoan, Asisko San Frantzisko elizatik irteten ari zela. Greba orokorra deitu zuten martxoaren 3rako, eta elizan batzartuta zeuden. ZIUh hil zen, gaueko 23:00etan.

Prozedura: Oso gertutik buruan tiro bat eman zioten.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Pedro Martinez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Jose Castillo Garcia eta Bienvenido Pereda Moral langileak hil zituzten. Protestetan, pertsona hauek hil ziren: martxoaren 8an, Vicente Anton Ferrero (18 urte, Basauri) eta Juan Gabriel Rodrigo Knajo (19 urte, Tarragona); eta martxoaren 14an, Mario Marotta (52 urteko ingeniaria, Erroma). Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

3

Pedro Martinez Ocio

Data: 1976/03/03.

Adina: 27 urte.

Non jaioa: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Forjas Alavesas enpresako langilea.

Egilea: Polizia Armatua.

Heriotza-lekua: Gasteizko Zaramaga auzoan, Asisko San Frantzisko elizatik irteten ari zela. Greba orokorra deitu zuten martxoaren 3rako, eta elizan batzartuta zeuden.

Prozedura: Hainbat tiro eman zizkioten ezkerreko saihetsetan.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Romualdo Barroso Chamorro, Francisco Aznar Clemente, Jose Castillo Garcia eta Bienvenido Pereda Moral langileak hil zituzten. Ehundik gora lagun zauritu zituzten balaz. Protestetan, pertsona hauek hil ziren: martxoaren 8an, Vicente Anton Ferrero (18 urte, Basauri) eta Juan Gabriel Rodrigo Knajo (19 urte, Tarragona); eta martxoaren 14an, Mario Marotta (52 urteko ingeniaria, Erroma). Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

4

Francisco Aznar Clemente

Data: 1976/03/03.

Adina: 17 urte.

Non jaioa: Sama de Langreo (Oviedo).

Bizilekua: Zaramaga (Gasteiz).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ikaslea zen, eta aldi berean okindegi batean egiten zuen lan.

Egilea: Polizia Armatua.

Heriotza-lekua: Gasteizko Zaramaga auzoan, Asisko San Frantzisko elizatik irteten ari zela. Greba orokorra deitu zuten martxoaren 3rako, eta elizan batzartuta zeuden.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Romualdo Barroso Chamorro, Pedro Martinez Ocio, Jose Castillo Garcia eta Bienvenido Pereda Moral langileak hil zituzten. Ehundik gora lagun zauritu zituzten balaz. Protestetan, pertsona hauek hil ziren: martxoaren 8an, Vicente Anton Ferrero (18 urte, Basauri) eta Juan Gabriel Rodrigo Knajo (19 urte, Tarragona); eta martxoaren 14an, Mario Marotta (52 urteko ingeniaria, Erroma). Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

5

Jose Castillo Garcia

Gertakarien data: 1976/03/03.

Heriotzaren data: 1976/03/06.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Morasverdes (Ciudad Rodrigo, Salamanca).

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Ezkondua.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Basa enpresako (Grupo Arregui) langilea.

Egilea: Polizia Armatua.

Heriotza-lekua: Ospitalean, Gasteizko Zaramaga auzoan Asisko San Frantzisko elizatik irteten ari zela zauriturik gertatu ondoren. Greba orokorra deitu zuten martxoaren 3rako, eta elizan baztertuta zeuden.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Romualdo Barroso Chamorro, Pedro Martinez Ocio, Francisco Aznar Clemente eta Bienvenido Pereda Moral langileak hil zituzten. Ehundik gora lagun zauritu zituzten balaz. Protestetan, pertsona hauek hil ziren: martxoaren 8an, Vicente Anton Ferrero (18 urte, Basauri) eta Juan Gabriel Rodrigo Knajo (19 urte, Tarragona); eta martxoaren 14an, Mario Marotta (52 urteko ingeniaria, Erroma). Jose hil ondoren, haren familiak Gasteiztik alde egin zuen. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

6

Bienvenido Pereda Moral

Gertakarien data: 1976/03/03.

Heriotzaren data: 1976/04/06.

Adina: 31 urte.

Non jaioa: Salazar de Amaya (Burgos).

Bizilekua: Gasteiz.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Grupos Diferenciales taldeko langilea.

Seme-alabak: Ezkondua.

Egilea: Polizia Armatua.

Heriotza-lekua: Ospitalean, hilaren 3an Gasteizko Zaramaga auzoan Asisko San Frantzisko elizatik irteten ari zela zauriturik gertatu ondoren. Greba orokorra deitu zuten martxoaren 3rako, eta elizan batzartuta zeuden. Ospitalean, hauxe eman zuten heriotzaren kausatzat: septizemia

Prozedura: Hainbat tiro eman zizkioten bularraldean.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Romualdo Barroso Chamorro, Pedro Martinez Ocio, Francisco Aznar Clemente eta Jose Castillo Garcia langileak hil zituzten. Ehundik gora lagun zauritu zituzten balaz. Protestetan, pertsona hauek hil ziren: martxoaren 8an, Vicente Anton Ferrero (18 urte, Basauri) eta Juan Gabriel Rodrigo Knajo (19 urte, Tarragona); eta martxoaren 14an, Mario Marotta (52 urteko ingeniaria, Erroma). Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

7

Justo Lopez de Zubiria

Data: 1979/08/25.

Adina: 43 urte.

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Las Vegas tabernaren jabea.

Egilea: Kale-jantzian zihoan polizia batek. Itxuraz, polizia mozkortuta zegoen.

Heriotza-lekua: Gasteizko Las Vegas tabernan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Erasotzaileak tabernako bezero bat hil zuen: Felix Minguela Sanz. 1980ko azaroaren 6an egin zuten epaiketa, eta polizia erruduntzat jo zuten. 1981. urtera bitartean, 13 pertsona hil ziren poliziek beren armak gaizki erabiltzeagatik. Hilketak horietako asko tabernetan gertatu ziren. Kasu hau Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratutako Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketen biktimak txostenean aipatzen da (2008).

8

Felix Minguela Sanz

Data: 1979/08/25.

Adina: 39 urte.

Bizilekua: Gasteiz.

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gasteizko Las Vegas tabernako bezeroa.

Egilea: Kale-jantzian zihoan polizia batek. Itxuraz, polizia mozkortuta zegoen.

Heriotza-lekua: Gasteizko Las Vegas tabernan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Erasotzaileak tabernaren jabea hil zuen: Justo Lopez de Zubiria. 1980ko azaroaren 6an egin zuten epaiketa, eta polizia erruduntzat jo zuten. Kasu hau Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratutako Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketan biktimak txostenean aipatzen da (2008).

9

Maria Angeles Barandiaran Larrañaga

Data: 1982/10/16.

Adina: 52 urte.

Non jaioa: Bergara (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Garraio-agentzia baten jabea, senarrarekin batera.

Egilea: Polizia Nazionala.

Heriotza-lekua: Gasteizko Gamarrako Atea kalean barrena beren Seat 127an zihoazela, lau tiro eman zizkioten berari eta senarrari.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Victoriano Aguiriano Cortazar senarra hil zuten. Egindakoa zuritu zuten poliziek. Haien arabera, senar-emateek norabidez aldatu zuten kontrolean ez gelditzeko, eta, aurrekaririk ez zuten arren, tabako-trafikoan nahasita zeudela pentsatu zuten (Ikus Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratutako Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketen biktimak txostena, 2008ko ekaina).

10

Victoriano Aguiriano Cortazar

Data: 1982/10/16.

Adina: 59 urte.

Non jaioa: Bergara (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Tabacalera SA enpresako banatzaile ofiziala. Garraio-agentzia baten jabea, emaztearekin batera.

Egilea: Polizia Nazionalea.

Heriotza-lekua: Gasteizko Gamarrako Atea kalean barrena beren Seat 127an zihoazela, lau tiro eman zizkioten berari eta emazteari.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, Maria Angeles Barandiaran Larrañaga emaztea hil zuten. Egindakoa zuritu zuten poliziek. Haien arabera, senar-emateek norabidez aldatu zuten kontrolean ez gelditzeko, eta, aurrekaririk ez zuten arren, tabako-trafikoan nahasita zeudela pentsatu zuten (Ikus Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratutako Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketan biktimak txostena, 2008ko ekaina).

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.